

Erlijio Katolikoa



ibai bi
Proiektua



Egileen koordinatzailea

Juanjo Leanizbeaskoa

Proiektuaren eragilea

Goyo Ponce de León

Egileak

Juanjo Leanizbeaskoa


Txemi Aranburu

Maite Losada

José Miguel Rodríguez



Erlijio Katolikoa DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4 izenburuko idazlanak sortzen lankide izan diren egileek Caritasek kudeatutako "Haurrak eta Familia" proiektuari ematen dizkiote berorien salmentak sortutako irabaziak.



Liburu honen salmentaren % 0,7
Chibuluman (Zanbian) eskola bat eraikitzen
zuzenduko da. Solidaridad, Educación, Desarrollo
(SED) GKEak kudeatzen du proiektu hau

IBAIZABAL

1 Sarrera

LOEk garrantzi handiko aldaketak ekarri ditu eskolako hezkuntza sistemaren antolamendura, eta aldaketa horiek eragina dute eskolan gauzatzen den Erljioaren irakas-kuntzan ere. Aldaketarik esanguratsuena, eta garrantzitsuena, zalantzarik gabe, eskola curriculumaren orientabidea da, ikasleek gaitasunak jadesteari lehentasuna ematen diolako, jakintzak jadesteari lehentasuna eman ordez, orain arte ohikoa zen bezala.

Gaitasuna definitzean, gaitasuna *zeregin, eginkizun edo lanbide bat gauzatzeko beharrezkoak diren jakintza, trebetasun eta jarrerren multzoa dela esaten da. Gaitasunari esker, gainera, baliabide pertsonal horiek gaitasunak berez helburu zuen zeregin, eginkizun edo lanbidetik kanpoko zenbait esparrutan arazoren bat konpontzeko edo emaitzaren bat lortzeko erabil daitezke*. Eta bistakoa da horrela lortutako gaitasunak, era berean, bizitzako askotariko arazo, erronka edo egoerei eraginkortasunez aurre egiteko aukera ematen duten tresna pertsonalak direla. Horrela, munduaren errealitateari aurre egiteko trebakuntzat hartzen da eskola ikaskuntza, batez ere; eta ez errealitate horren gaineko jakintza zientifikoa lortzetat, nahiz eta hori positiboki bazterturik geratu ez.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ez dio hezkuntza gaitasun orokorrak eta LOEn sustatzen diren oinarriko gaitasunak eskuratzeari bakarrik begiratu; curriculum arloetako berariazko gaitasunen garapena ere bilatzen du. Ondorioz, Erljio Katolikoaren eskola irakaskuntzak bere egin du, era berean, orientabide hori, eta, horrela, Erljio curriculumak Autonomia Erkidegoko gainerako curriculumekin uztartu du.

2 Erljio Katolika eta gaitasunen eredia

Gaitasunen eredia nor bere egiteak erlijioa gizakiaren jardura osatzailatzat hartzea eskatzen du, eta ez mezu bati edo sineste batzuen formulazioari bai espere intelektual soilak ematea. Erljioa giza jardueratzat hartzen ez bada, ez dago jardura hori gauzatzen dela bermatzeko gaitasun jakin batzuk lortzerik. Era berean, gaitasunen eredia honako hau eskatzen du: erlijioa inguruan azaltzen den giza eta gizarte errealitateatzat hartzea, eta eskola curriculumean jasotzea, bizitza pertsonalean edo giza harremanean eragina duten inguruko gainerako errealitateak bezala.

Gizadiak Sakratuaren esperientzia eta esperientzia horrek bizitzari eta munduari ematen dion berariazko zentzua adierazteko erabili izan dituen –eta gaur egun erabiltzen dituen– elementu guztiek osatzen dute errealitate erlijiosoak. Erljioari buruzko gaitasuna, ondorioz, honetan datza: *egun errealitate erlijiosoak osatzen duten hainbat adierazkortasun molderen bidez, gizakiari gizadiaren esperientzia erlijiosoak jabetzen nahiz kasuan kasuko erantzun egokia ematen laguntzen dioten trebetasun, jakintza eta jarrerren multzoa*. Gaitasun horri esker, fededuna izanez gero, gizakiak Sakratua (Transzendentearen Misterioa, jainkotasuna) antzeman dezake, errealitate erlijiosoaren elementuen bitartez.

Sinesteak, liburu sakratuak, elkarte erlijiosoak, gurtza, kode etikoa, arte erlijiosoak, sinestearen gizarte eta kultura adierazpenak, esperientzia erlijiosoak eta hainbat erlijioaren presentzia dira «errealitate erlijiosoaren elementuak edo esparruak» deitzen ditugunak. Esparru horiek eratzen dute erlijioaren unibertsoa, hura gizakiari aurkeztean zaion moduan. Baina esparru edo elementu generiko horiek ez dira inoiz abstrakzioatzat gauzatzen; hau da, erlijio bakoitzaren berariazko elementuetan zehazten dira beti. Era berean, *erlijioari buruzko gaitasuna* erlijio jakin baten ikuspuntutik edo erlijioari lotutako aukera pertsonaletik eskuratzen eta gauzatzen da beti. Eta, horregatik, gaitasun erlijiosoak eskuratzeko helburutzat duen erlijioaren irakaskuntza Erljio Katolikoaren irakaskuntza konfesionala da, curriculum honetan.

3 Erlijio Katolikoaren curriculuma

Curriculum honetan programatzen diren helburuak eta edukiak errealitate erlijiosoaren esparruetako bakoitzari dagozkio, berariaz.

Sinesmenak dira errealitate erlijiosoaren osagairik erabakigarriena, horiek aitortzen dituen talde erlijiosoa identifikatzeko balio dutelako. Sinesmenei buruzkoa da, beraz, curriculumean helburu hartutako lehenengo gaitasuna; eta, aldi berean, dagokion edukien multzoan aipatzen diren trebetasun, jakintza eta jarreretan zehazten da. Formulazioak logikoak eta hitzezkoak izanik, sinesmenei buruzko gaitasunek koherentzia logikorantz jotzen dute beren sorkuntzan, adierazpen argian eta argudioen eraginkortasunean.

Biblia da, kristau erlijioan, sinesmenen funtsezko iturria, beste erlijio batzuetan beren testu sakratuak diren bezala. Israelgo herriaren eta kristau elkartearen esperientzia erlijiosoa Bibliako testuetan jasota dago. Hain zuzen ere, esperientzia hori Bibliako testuen mintzamolde literarioaren eta kultura esparruaren bitartez geure egiteko aukera da curriculumean formulatzen den bigarren gaitasunaren eta horri dagozkion garapenen helburua.

Kristau elkartea, kristautasunaren esperientzia erlijioso originalean parte hartzen duten eta, gaur egun, Jesus berpiztuarengan adierazten den Sakratua antzematen jarraitzen duten kideez osaturiko gizataldea da. Hirugarren gaitasunak esperientzia hori antzemateko prestatzen du ikaslea, Euskal Herrian zein Eliza unibertsalean kristau elkar-teak gauzatzen dituen jardueren bidez. Eta, fededunari dagokionez, elkarteko jardueren garapenean pertsonalki parte hartuz.

Errealitate erlijiosoaren elementuen artean, **otoitzek eta gurtzak** adierazten dute giza-kiaren sentimendu eta esperientzia erlijiosoa eraginkortasunik handienaz. Esperientzia eta sentimendu erlijioso hori gurtzaren sinboloen unibertsoaren bidez hautemateko ezinbesteko gaitasuna jadestea da curriculum honen funtsezko helburuetariko bat. Fededunei dagokienez, kristau elkartearen gurtzazko jardueran gogotsu parte hartzeko gaitasuna jadestea jartzen du helburutzat.

Kode etiko-moralak esperientzia erlijiosoak sinestedunarengan dituen ondorioak adierazten ditu, bere inguruarekiko duen harremanari dagokionez. Esperientzia erlijiosotik sortutako munduaren ikuskerak baldintzatu egiten ditu sinestedunak mundu horrekin dituen harremanak, hau da, «jokaera morala» deitzen den hori. Horregatik, esperientzia erlijiosoak ematen die zentzua kode etiko-moralaren proposamenei. Ildo horretatik, Erlijioaren eskola irakaskuntzarako nahitaezko helburua da ikasleari gaitasuna ematea, bai kode etikoaren iturri den munduaren ikuspuntua hautemateko, bai munduaren ikuspuntuan eta bizitzaren zentzuan inspiratutako jokamoldeari buruzko iritziak emateko eta horren arabera jokatzen ohitzeko.

Erljioaren adierazpen artistikoa esperientzia erlijiosoaren adierazpenerako ezinbesteko gertaera eta eremu pribilegiatua da. Artelanaren bitartez, Sakratuaren hautemateak eragindako sentimendua askatasunez adierazi izan dute gizabanakoek, kultura taldeek eta elkarre erlijiosoek. Adierazpen artistikoari esker, esperientzia erlijiosoa esperientzia estetiko bihurtzen da. Hala, esperientzia estetikoa esperientzia erlijiosorako –Sakratuaren hautematea– bide bihurtzen da. Ildo horretatik, ikasleek artisten esperientzia estetiko eta erlijiosoa hautemateko eta partekatze gaitasuna jadestea da curriculumean proposatzen diren helburuetako bat.

Gizatalde jakin batek edo gizarte osoak bere egindako esperientzia erlijiosotik eratorritako instituzioak, usadioak, mintzamoldeak, adierazpen folklorikoak, erlijiotasun herrikoien adierazpenak... dira **erlijioaren gizarte-kultura adierazpenak**. Molde horietako asko bizirik dira gaur euskal gizartean, dagoeneko ahaztuta dagoen iragan

baten testigu mutu. Ondorioz, ikasleak iraganeko esperientzia erlijioso horretara jotzeko gaitasuna jadedtea da Erljio curriculumaren beste helburuetako bat. Bide horretatik, inguruko unibertso erlijioso hobeto ulertzeaz gain, herria edo gizartea bere sustraiekin uztartuko du.

Historia erlijiosa da errealitate erlijiosoaren funtsezko beste osagai bat. Erljioaren eta euskal errealitatearen beraren elementu askok gaur egun duten presentzia edo konfigurazioa bete-betean justifikatzeko, ezinbestean jo beharra dago historia erlijiosora. Bestalde, historiako gertaerak gaurko egoera askotan egitasmo eta erabakiei buruzko aurreikuspen eta bereizketa egiteko iturri dira. Gaur egungo Euskal Herriko kristau elkartearen berariazko egoera, instituzio edo gertaerak historia erlijiosoko gertaeren bidez argitzeko edo horietan oinarritzeko gaitasunak erraztu egiten du erljioaren gaurko osagaietan islatzen den esperientzia erlijiosoaren bilaketa.

Norberarenaz **bestelako talde erlijiosoaren presentzia** da gizarte honetako errealitate erlijiosoaren beste osagaietako bat. Askotariko kultura aukerak egin dituzten eta munduaren gaineko askotariko ikuskerak dituzten pertsona eta taldeen integrazioa ahalbidetzea da eskolaren ezinbesteko eginkizunetako bat. Erljio guztiak bilduko dituen gizartea eraikitzeke egitasmo komunean parte hartu beharrak eta gizarteko esparru publikoa errespetuz eta elkarlanean partekatu beharrak ezinbestean eskatzen du gizarte esparru bereko talde erlijiosoaren arteko errespetua, bizikidetasuna, lankidetzeta eta partaidetzeta bermatzeko berariazko gaitasuna garatzea.

4 Erljio curriculum eta hezkuntza gaitasun nagusiak

Euskal Autonomia Erkidegoko Curriculumaren Ezarpenerako Dekretuak hezkuntza gaitasun nagusiak jartzen ditu helburu nagusitzat. Eta honela definitzen ditu: «*Hezkuntza testuinguru guztietan, formaletan zein informaletan, ikasten diren oinarritzko osoko hezkuntzarako zein bizitza osorako hezkuntza iraunkorrerako erreferentzia ardatz nagusiak*». Gaitasun horiek oinarritzko hezkuntzako arlo edo gai guztiei dagozkie, gainera. Erljioari dagokionez, hezkuntza testuinguru *formal* nahiz *informaletan* ikasten den irakasgaia da; horregatik eta bere edukien berariazotasunagatik, hezkuntza gaitasun nagusi horiek lortzeko esparru bereziki egokia da.

Biziaren zentzua da Erljioaren edukiaren funtsezko aztergaia. Hura formulatzeko aukerak, hura bizitzeko eta adierazteko moduak ezagutzeak haren definizio pertsonal eta autonomoa gauzatzeko etengabeko eragingarri eta lagungarri izan behar du. Era berean, erljioaren adierazpen estetikoetan adierazitako biziaren zentzuaz jabetzeko gaitasunak kultura ondareaz gehiago gozatzeko aukera emango digu.

Gaitasun erlijiosa, lehenik eta behin, gaitasun hermeneutikoa da; izan ere, erljioaren esparru guztiak (sinesmenak, liburu sakratuak, gurtza, etika, artea, eta abar) interpretatzeko aplikatzen da, erljioaren adierazpenetan agertzen diren esperientzia gizatiar, pertsonal, estetiko eta erlijiosa antzemateko. Pentsamolde kritikoa eta etengabeko bilaketa sustatzen ditu, beraz, eta prozesu horretan ezinbesteko elementuak dira azterlan sistematikoa eta erabakiak hartzea.

Jarduera erlijioso ororen **izaera komunitarioa** dela-eta, lehentasuna eman behar zaie taldearen jardueretan parte hartzeko, hainbat ideologia eta munduaren ikuskera batera bizi diren esparru publikoan komunikatzeko eta gizartearen egitasmo komunetan truke, harrera eta ulermenezko jarrera ekumenikoaz parte hartzeko ezinbesteko jarrera eta gaitasunei. Erljioaren eskola irakaskuntza, ikuspuntu horretatik, erabakigarria izango da elkarrekin bizitzen ikasteko.

Alderdi etikoa sistema erlijioso guztiek berez atxikita duten alderdia da. Irizpide moralak gauzatzeko ezinbesteko gaitasunak nor bere buruaz argi eta garbi jabetzea, eta etengabe hainbat aukeraren arteko hautua egitea eskatzen du. Heziketa moral egokiaren bidez, nortasun autonomo eta askea izango du pertsonak, eta bere aukeren erantzule izango da.

Erljioek gizatasunaren sustatzaile diren erakunde eta gizabanakoen **eredu historikoak** ematen dizkigute, baina eredu horiek ez dira Erljioko edukien erreferenteak soilik; erljiioak, mundua eraldatzeko grina duenez, egiteko eta ekiteko ematen duen gaitasunaren adierazle ere badira. Eskolako erljiio irakaskuntzak funtsezko jotzen du nork bere burua kausa jakin bati atxikitze eta gizatasunezko egitekoetan arduraz parte hartzeko bidea ematen duten gaitasunak garatzea.

Erljiioaren berriazko elementu horien bidez txertatu dira eskola sistemak etapa honetarako porposatzen dituen oinarrizko helburuak Erljioko irakasgaiaren curriculumean.

5 Erljiio curriculum eta oinarrizko gaitasunak

LOEk, curriculum orokorraren Errege Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko berriazko curriculumak nabarmentzen dutenez, curriculum arlo guztiek oinarrizko gaitasunen garapena sustatu behar dute. *Oinarrizko gaitasunak* gaitasun unibertsalak dira, ezinbestekoak bizitzako errealitateari aurre egiteko, oinarrizko eskolatze aldia bukatzen duen gazteari bizitzak aurrez aurre jartzen dion edozein inguruabar eta aukeratan. Oinarrizko gaitasunak eskuratzea zeharkako hezkuntza jardueratzat jotzen da, eta eskola irakasgai guztiek lagundu behar dute horretan. Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren arabera, honako hauek dira gazteak, oinarrizko eskolatze aldia bukatzen duenean, bizitzari aurre egiteko behar dituen oinarrizko gaitasunak:

- a) Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna.
- c) Matematikarako gaitasuna.
- d) Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- f) Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- g) Giza eta arte kulturarako gaitasuna.
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Hala, erljiio arloak, curriculumeko gainerako gaiekin batera, oinarrizko gaitasun horiek eskuratzen lagundu behar dio oinarrizko hezkuntzako ikasleari.

- a) Erljioko irakasgaiak **gaitasun zientifikoa eta teknologikoa** lortzen laguntzen die ikasleei, honako hauen bidez: errealitate erlijiosoko gertaeren behaketa eta deskribapen zehatza, gertaera horiei buruzko galderak, sinesmen jakin bat zorrotz oinarritzea, hermeneutika egokiak eskatzen dituen urrats metodologikoak ematea, edo hainbat erljioreen formen eta sinesmenen arteko konparazioa.
- b) **Ikasten ikasteko gaitasuna** ezinbestekoa da fededunaren bilakaera erlijioso eta morala bermatzeko; baita erljiio gaitasunak berriazkoa duen gaitasun hermeneutikoari eusteko ere. Fede erlijiosoa prozesu dinamikoa da; eta egoera berri bakoitzean biziaren zentzuari eta bere funtsezko hautaketari buruz gogoeta egiteko beharra dauka fededunak prozesu horretan. Bere erljiioaren esparru guztietan etengabeko ikas-

kuntza garatzeko gaitasunetik baino ezin da bermatu fedearen bilakaera homogeen eta garapen harmonikoa. Era berean, fedegabeak behin eta berriro aurkituko ditu osagai erlijiosoak bere eta besteen kulturari, eta horien esanahi humano, soziokultural eta erlijiosoei antzemateko etengabe landu beharko du interpretazioa eta azterketa, bidean topatzen dituen gizaki eta kultura berriak ezagutzeari begira.

- c) **Gaitasun matematikoa**, curriculumaren agiri orokorrak deskribatzen duen bezalaxe, sinesmenak argudiatzeko arrazoiketa logikoa lantzean garatzen da; baita moral erlijiosoaren printzipio orokorrak jokaera arauetan edo haietan inspiratutako irizpide moraletan zehazteko aplikazio prozesuetan ere.
- d) Era berean, ezinbestekoa da **bizkuntza komunikaziorako gaitasuna** garatzea, sinesmenen edukia zehazteko, sinbolo edo irudi erlijiosoak irakurtzen ikasteko, edo garai guztietako fededunek Jainkoari buruzko jarrera adierazteko liturgian erabili izan dituzten zeinuen lengoia emankorra interpretatzeko. Baita norberaren sinesmenak lengoia logiko-hitzezko egokian formulatzeko, edo beste gizabanako edo gizatalde erlijioso batzuekin harremanetan jarri eta norberaren sinesmenak haienekin alderatzeko.
- e) **Informazioaren tratamendu eta gaitasun digitalerako** gaitasuna lortzea aukera metodologikoaren mende egongo da, errealitate erlijiosoarekiko harremanen mende baino gehiago, Erlijioaren arloak gaitasun hori lantzeko aukera asko eskaintzen dituen arren. Irakasleak argi eduki behar du bere lan metodoan informazioaren tratamendu digitala txertatzen duen heinean lagunduko diela ikasleei gaitasun hau bereganatzen.
- f) Bestalde, curriculumean aipatzen den **gaitasun sozial eta herritarra** lortzeko, erabakigarria da kristau elkarrekin sinestean eta errealitate erlijioso ororen euskarritzat hartzea, eta erlijioaren eskola irakaskuntzak ikaslearengan talde erlijiosoaren jardueran laguntzeko eta parte hartzeko gaitasuna sustatzeko asmoa izatea.
- g) Bestalde, erlijioaren asmoetako bat gertaera erlijiosoari lotutako ondare kultural eta artistikoari buruzko gaitasun jakin batzuk lortzea izanik erlijioaren irakaskuntza bide aparta da **gaitasun humanistiko eta artistikoa** jadeteko.
- h) Azkenik, eskolan Erlijioa irakasteari atxikitako hezkuntza moralaren helburua ikaslea heteronomia moraleko egoetatik erabateko autonomiako jarduerara bideratzea da; izan ere, gizakia bere aukeren eta orientazio moralaren jabe izango da, egoera horretan, munduaz duen ikuspuntuaren arabera. Hori ezinbesteko osagaia da **autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasunean**.

6 Erlijio curriculumaren osagaiak

Erlijioaren irakaskuntza nola edo hala errealitate erlijiosoaren araberrako gaitasunak lortzera bideratzea planteamendu berrizalea da; alegia, aurretik proposatu izan diren curriculumen bestelako planteamendu bat dakar oraingo gaitasunen curriculumak.

Gaitasunen curriculum ereduari, ikasleak lortu behar dituen gaitasunak berak dira *ikas-kuntzaren helburuak*. Curriculumean, funtsezko bederatzi gaitasun proposatzen dira; errealitate erlijiosoan osatzen duten osagaietako bakoitzerako gaitasun bat, hain zuzen. Gaitasun bakoitzaren azalpena errealitate erlijiosoaren osagai edo esparruei buruzko epigrafean aditzera emana dugu dagoeneko. Bestalde, *Leben Hezkuntzako eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako Erlijio helburuek* gaitasun bakoitza lortzeko bi fase zehazten dituzte. Hala, orain artean Erlijio curriculumak jakintzazko edukiei bakarrik aplikatzen ziren *espiraleko curriculum* ereduak gaitasunen curriculum programazioari ere aplikatuko zaio, orain.

Ikaskuntzaren edukiak Erljioaren aurreko curriculumetan ez bezala aurkezten dira orain. Lehenengo eta behin, eduki multzo bakoitzak errealitate erlijiosoaren elementu bat adierazten du, oro har; ez berariazko ezagutza batzuk. Eduki multzo bakoitzean zehazten diren edukiak, berriz, multzo horri dagokion gaitasunak eskatzen dituen trebetasunak eta/edo jarrerak dira. Trebetasunak gaitasun edukiak dira. Baina Erljio curriculumean, gaitasun eduki horiek ezin bereiz daitezke sinesmen erlijioso katolikoaren berariazko ezagutzetatik. Horregatik, orrialdeen oinean ohar batzuk agertzen dira, trebetasun bakoitza zer jakintzarekin edo edukirekin lotuta dagoen erakusteko. Irakasgai edukiak dira. Horrela, gaitasunen eta jakintzen arteko oreka bermatu nahi da, garrantzi handikoa eta ezinbestekoa baita kalitatezko irakaskuntzarako, eta, prozedurazkoa ez ezik, funtsezkoa izango den Erljioaren irakaskuntza bat gauzatzeko. Nabarmentzekoa da, era berean, irakasgai edukiak zehazteko erreferentzia gaur egun indarrean dagoen Espainiako Gotzainen Batzarrak argitaratutako curriculumuma izan dela, une oro.

Ebaluazio irizpideen bitartez, helburuak nola eta zenbateraino lortu diren ikus daitezke. Curriculum honetan proposatzen diren ebaluazio irizpideek bi berritasun nagusi dituzte: lehenik, ziklo bakoitzerako ebaluazio irizpideak zehaztu dira, etapa bakoitzaren amaierarakoak soilik formulatu ordez. Horrek zera esan nahi du: alde batetik, ikaskuntzako helburuak ahalik eta gehien mugatu direla, mailari eta kopuruari dagokienez, ziklo bakoitzerako eduki multzoetan zehaztu diren trebetasunen bidez; eta, bestetik, ziklo bakoitzerako ebaluazio irizpideak formulatuta ikaskuntzaren aurrerapenaren hurbilagoko jarraipena egin daitekeela eta ikasleak jadetsi gabeko helburuak berreskuratzeko erraztasunak ematen direla. Curriculumeko edukien formulazioaren bigarren berritasuna zehaztasuna da. **Ebaluazio irizpideak** egoera «tipo» edo eredu gisa adierazten dira; alegia, ekintza jakin baten bidez ikasleak egoera jakin bat ebazteko gaitasuna duen erakusten dute. Gaitasunak ebaluatzeko erabiltzen den irizpideen araberrako ebaluazio molde bat da.

Azkenik, Erljio curriculumak *orientazio metodologikoa* proposatzen du. Irakaslearen jarduera eraginkortasunez bideratzea baino gehiago, ikasgelan gaitasunen garapenean oinarrituriko erljio irakaskuntza eredu praktikoa moduan zehaztea da orientazio horren xedea.

7 Helburuak eta gaitasunak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran, ikasleak honako gaitasun hauek bereganatuta eduki behar ditu:

1. Kristau fedearen eta bere inguruko talde erlijiosoen sinesmenak zehatz, sistematikoki eta ongi antolatuta formulatzeko gaitasuna; bere fede aukerak egoki argudiatzeko eta norberaren eta besteen sinesmen erlijiosoak gatazkak konpontzeko eta gizarte egitasmo komunitario partaidetza sustatzeko akuilu gisa erabiltzeko gaitasuna.
2. Bibliako testuen literatura moldeen, eta testuinguru historiko eta kulturalen bidez Israelgo herriaren eta hasierako kristau elkarten esperientzia erlijiosoa identifikatzeko gaitasuna; testu horien bitartez gaur egungo kristau elkartearen fedearen oinarria aurkitzeko gaitasuna.
3. Kristau elkartearen bizitzan eta/edo egitasmoetan parte hartzeko eta inguruko talde erlijiosoen gizarte ekintzako proiektuetan parte hartzeko gaitasuna, hierarkia erlijiosoen eginkizunak eta egitekoak errespetatuta, betiere.
4. Zeinu liturgikoak, hitzak eta errituak interpretatzeko gaitasuna; horien bidez eta beren estetikaren bidez norberaren buruaz eta jainkotasunarekiko eta munduarekiko harremanaz jabetzeko gaitasuna; beste talde erlijioso batzuen otoitz eta gur-

tzaren balioak aintzat hartzeko gaitasuna; eta, hala dagokionean, bere elkarteko jarduera liturgikoetan parte hartzeko eta egiteko jakin batzuk gauzatzeko gaitasuna.

5. Erabakiak hartzeko eta jarduteko egitasmo pertsonalak edo kristau elkarteari dagozkionak eratzeko eta burutzeko gaitasuna, kristau sinesmen, munduaren ikuskerak eta etikak sustatutako funtsezko jarrerak eta balioak erreferentzia hartuta.
6. Artelanak, literatura lanak eta musika lanak interpretatzeko kodeak zuzen ezartzeko eta lan horien egileek adierazten edo komunikatzen duten esperientzia erlijiosoaren berri emateko gaitasuna.
7. Euskal Herriko testuinguruan gertatzen diren eta komunitateak onartuta dituen adierazpen eta gertaera soziokultural erlijiosoak aintzat hartzeko, nor bere egiteko eta horietan parte hartzeko gaitasuna, aberastasun kolektibo gisa eta biziki-detasuna sustatzeko eta hobetzeko kulturarteko lotura gisa hartuta.
8. Euskal gizarteko, komunitate unibertsaleko eta Eliza bizitzako gaur egungo gertaerak aztertzeke gaitasuna, horiei esanahia edo zentzua ematen dieten kristau historiako gertaeretan oinarrituta; kristau historiako gertaerak dagokien testuinguru historiko-geografikoan kokatzeko eta horietatik gaur egungo kristau elkartearen jarduerak orientatzeko ondorioak ateratzeko gaitasuna.
9. Kristauak ez diren pertsona eta konfesio erlijiosoekin bizitzeko eta elkarlanean jarduteko gaitasuna; beren nortasunen balioa aitortzeko eta gizakiaren, gizartearen eta munduaren eraikuntzan guztiak bat datozen idealak partekatzeke gaitasuna.

8 Edukiak

1. multzoa: *Kristau fedearen sinesmenak*

1. Kristau fedearen egia nagusiak formulatzeko eta lotzeko eskemak egin, eta horien edukia argi azaldu¹.
2. Kristau fedearen sinesmen jakin baten edo batzuen euskarri diren Bibliako testuen berri eman.
3. Gaur egungo kristau elkartearen erakunde, egiteko, lan eta jarduera jakin batzuen oinarri diren sinesmenei antzeman².
4. Kristau zeinu liturgiko, erritu, ospakizun eta jaietan adierazten diren kristau elkartearen sinesmenak identifikatu³.
5. Erlijioaren oinarri eta arau moralek zer sinesmen erlijiosori eta munduaren eta pertsonaren gaineko zer ideari erantzuten dieten zehaztu⁴.
6. Euskal Herriko folkloreak edo/eta herri erlijiotasunaren adierazpenetan (elezaharrak, abestiak, lekuak, jaietako dantza erritualak eta ohiturak) agertzen diren kristau fedearen sinesmenak identifikatu.
7. Kristau fedearen gaur egungo sinesmenak kristau elkartearen sinesmen horien antzinako aztarna eta agiriekin lotu.
8. Kristau historian zehar, sinesmen edo fede aukeraren batek sustatuta jardun izan duten pertsona eta/edo taldeen ekintzen testigantza ematen duten sinesmenak identifikatu⁵.
9. Inguruko talde erlijiosoen sinesmen nagusiak sistematikoki egituratu.
10. Kristau fedearen sinesmen nagusiak inguruko talde erlijiosoen sinesmenekin konparatu, metodologia egokia erabiliz.

11. Kristau fedearen eta beste konfesio erlijioso batzuen egia nagusiak era sistemati-koan eta argudio zientifikoen bidez adieraztea edo azaltzea aintzat hartu.

2. multzoa: *Biblia*

1. Testuen iruzkin literarioaren teknika erabili, Bibliako testuen molde eta esperien-zia estetikoari antzemateko.
2. Hermeneutika biblikoaren funtsezko legeak era sinplean aplikatu, Bibliako tes-tuen eduki erlijiosoak ezagutzeko.
3. Bibliako gertaera eta adierazpenak kristau historiako gertaera eta pertsonaiekin lotu⁶.
4. Antzinako mito eta elezahar erlijiosorik esanguratsuenak eta horiek transmititzen duten erlijio esperientzia identifikatu.
5. Liburu Santu nagusien alderdi literario eta eduki erlijiosoak zehatz, zorrotz eta zuzen adierazi⁷.
6. Bibliako testuen kultura eta literatura ezaugarrien gaineko jakin-mina.

3. multzoa: *Kristau elkarteak*

1. Kristau elkartearen gertaera eta jardueri buruzko iritziak eta irizpideak formula-tu, zeinu liturgikoen balio teologikoak irizpidetzat hartuta.
2. Biblian kristau elkartearen izatasun⁸ eta eginkizunei buruz jasotzen diren edukiak eta beste liburu sakratu batzuetan beren elkarte erlijiosoaren berariazko izatasun eta egitekoei buruz jasotzen direnak alderatu.
3. Inguruko edo maila nazional eta unibertsaleko kristau elkarteekin eta/edo horie-tako kide diren pertsona esanguratsuekin harremanetan jarri, eta Elizaren egite-koari (abade, profeta edo laguntza egitekoari) lotutako jarduera edo egitasmoei buruzko informazioa trukatu.
4. Kristau elkartearen eginkizun edo egitasmoei batean gauzatu beharreko egiteko edo funtzioak zehaztu eta, hala dagokionean, eginkizuna erantzukizunez nork bere gain hartu.
5. Hala dagokionean, kristau elkartearen gurtzan parte hartu, liturgiaren ospakizu-nean zein prestaketan, norberaren adinari egokitutako egitekoak nork bere gain hartuta⁹.
6. Euskal gizartearen hobetzen gogotsu parte hartu, kristau elkartearen berariazko jar-duera eta erakundeetan edo jarduera eta erakunde zibil eta laikoetan.
7. Kristau historiako gertaera nagusiak eskema kronologiko eta geografikoan behar bezala kokatu.
8. Kristau historiako gertaera nagusiak Elizaren egitekoen arabera aipatu, deskriba-tu, erlazionatu eta sailkatu¹⁰.
9. Elizak beste talde erlijioso batzuekin batera gaur egun egiten dituen jarduerak eta proposamenak eta historian zehar izan diren lankidetzazko egoerak lotu.
10. Ikuskera ekumenikotik, gizarte eta kultura inguruan batera jarduteko egitasmoak prestatu, beste talde erlijioso batzuekin.
11. Inguruko talde erlijiosoen elkarte erlijiosoari eta haren era askotako egiteko eta lanei buruz dituzten ikuskerak objektibotasunez eta metodologia egokia erabiliz konparatu.

- Hierarkia erlijiosoak kristau elkartearen antolakuntzan eta jardueretan eta beste talde erlijioso batzuetan duen egitekoa aintzat hartu.

4. multzoa: *Elizaren otoitza eta gurtza*

- Otoitzean, zeinu liturgikoan, errituan, ospakizun edo jaiari adierazten diren sinesmenei antzeman¹¹.
- Kristau elkartearen otoitz nagusien eta gertaera liturgikoen esanahi edo balioak argi, zehatz eta era ordenatuan interpretatu¹².
- Hala dagokionean, liturgiaren ospakizunaren barruan bikaintasun eta gozamen estetikoak dakarten jardueretan gogotsu parte hartu¹³.
- Inguruko herri erlijiotasunaren adierazpenik garrantzitsuenen jatorria eta esanahia argi eta era ordenatuan adierazi.
- Elizaren gaur egungo berriak ospakizun eta erritu batzuen berri eman, horien jatorri diren historiako gertaera edo egoerak oinarri hartuta¹⁴.
- Inguruko erlijioen liturgiaren adierazle eta egiturak bereizi eta konparatu.
- Hala dagokionean, jarduera liturgiko ekumenikoak prestatzen eta gauzatzen parte hartu.
- Zeinu eta adierazpen liturgikoak errespetatu eta/edo gurtu, gizaki eta taldeen eta jainkotasunaren arteko harremanaz jabetzeko bitarteko diren heinean.

5. multzoa: *Kristautasunaren kode moralak*

- Kristau kode moralaren arau eta oinarriak kristau fedearen berriak sinesmenetan, munduaren ikuskeran eta biziaren zentzuan oinarritu¹⁵.
- Kristau elkartearen oinarri, arau eta irizpide moralak beraien oinarri diren Bibliako testuetan justifikatu¹⁶.
- Kristau elkarrekin gauzatutako laguntza eta sustapen jarduerak justifikatu, Elizaren egitekoan eta kristautasunaren kode moraleko arau eta ereduaren oinarritutako argudioak erabilia.
- Giza jokaera jakin batzuek gizakiarentzat eta gizartearentzat izan ditzaketan ondorioei buruzko iritzia eman¹⁷.
- Inguruko gaur egungo jarduera, jokaera eta egoerei buruzko argibideak eman, kristau kode moralaren oinarri eta jarraibideetan oinarrituta.
- Irudikapen artistiko baten balio estetikoak eta argumentuaren balio etikoa, irudikapen moldeak edo helburua bereizi.
- Bizitzari eta jokaerari lotuta dauden eta gaur egungo gizartearen gatazka eragiten duten jarduera, gertaera, adierazpen edo egoerei buruzko iritzia eta/edo epaiak adierazi, kristau moralaren oinarriak aplikatuta¹⁸.
- Gaur egun indarrean dauden kristau kode eta jokamolde jakin batzuen aplikazioa historiako gertaeren bidez justifikatu.
- Beren kode etikoetan jasotako jokaerarako oinarri eta jarraibideetan oinarrituta, inguruko talde erlijiosoek gaurkotatzen duten egoera eta arazoei buruz duten jarrera etikoa argudiatu.
- Beren konfesio erlijiosoak edo etika zibilak ordena moraleko arazo pertsonal edo sozialei buruz dituzten aukera etikoei buruz solasean jardun, beste erlijio batzuetako kideekin.

11. Kristautasunaren eta beste erlijio batzuen kode etikoek islatzen dituzten balioak estimatu eta onartu.

6. multzoa: *Kristau fedearen adierazpen artistikoa*

1. Eduki erlijiosoko artelan baten egileak adierazten dituen sinesmenak, esperientzia erlijiosoa, sentimendu erlijiosoa edo biziaren aurreko jarrerak identifikatu.
2. Kristau liturgian gertatzen diren adierazpen estetikoak (espazioa, argia, kolorea, mugimendua, musika) identifikatu, aintzat hartu eta gozatu eta, hala dagokionean, horietan gogotsu parte hartu, protagonista gisa.
3. Irudi erlijiosoan irakurketari horiek ulertzeko kode estetiko eta erlijioso egokiak aplikatu.
4. Giltza erlijioso, literatura kode eta musika irizpide egokiak erabili eduki erlijiosoa duten literatura lanak, testuak eta musika konposizioak interpretatzeko.
5. Komunikabideen bitartez –zinema, telebista, musika ikuskizunak– transmititutako eduki erlijiosoko gaur egungo adierazpen artistikoak aztertu eta aintzat hartu.
6. Inguruko erlijio bakoitzaren adierazpen artistikoen arteko antzekotasunak eta aldeak adierazi eta arrazoitu.
7. Eduki erlijiosoko irudi, literatura lan edo musika konposizio baten bidez egileak azaltzen duen jarrera erlijioso eta/edo estetikoarekin enpatia erlazioak ezarri.

7. multzoa: *Fedearen gizarte–kultura adierazpenak*

1. Kristau erlijioaren berariazko sinesmen eta edukien erreferentziei antzeman, lengoaiaren adierazpen, esamolde edo esaera zaharretan.
2. Euskal Herriko kultura ondareko usadio, jai... jakin batzuk deskribatu eta arrazoitu, beren jatorri diren sinesmen eta gertaera erlijiosoak oinarri hartuta.
3. Euskal Herriko Elizak sustatutako Hirugarren Munduaren aldeko laguntzarako, etorkinen eta minusbaliatu fisiko edo psikikoen arretarako, zaharrei ethez etxeko laguntza emateko... egitasmoetan lagundu, bakarka nahiz taldean.
4. Iraganeko gertaera edo egoerak jatorri dituzten Erlijioaren gizarte-kultura adierazpenak dagokien testuinguru historikoan kokatu.
5. Gaur egun talde erlijiosoan arteko bizikidetasunean eragina izan dezaketen gizarte usadio eta egoerei buruzko epai eta iritziak eman.
6. Giza duintasunaren aldeko defentsan jardun eta talderik kaltetuenean aldeko arreta eta prestasuna erakutsi.

8. multzoa: *Kristau elkartearen historia*

1. Fedearen gaur egungo sinesmenak sustatu, zalantzan jarri edo definitu dituzten kristau historiako jazoera nagusiak zehaztu, kontatu eta kronologikoki antolatu, beren testuinguru geografiko eta kulturalak aintzat hartuta¹⁹.
2. Kristau historiako egoera eta gertaera esanguratsu batzuen eta Biblian kontatutako gertaera batzuen arteko paralelismoaz jabetu²⁰.

3. Gaur egungo kristau elkarteko egitura, gertaera eta egoerak Elizaren geroko garapenerako edo bere jarduerarik garrantzitsuenetarako erabakigarriak izan ziren historiako gertaera eta egoerekin lotu²¹.
4. Elizaren antolakuntzan bereizgarri diren gaur egungo erakundeak edo bere egitekoa betetzeari begira eratuak beren jatorri historikoekin eta/edo bere historiako gertaerarik esanguratsuenekin lotu²².
5. Kristau historian zehar gertatu ziren Elizako pertsona edo erakundeen jokaera eta jardueretan oinarritutako iritzi edo epai moralak formulatu.
6. Kristau historiako gertaera edo jardueretan jatorria duten eduki erlijiosoko artelan eta mugimendu artistikoak identifikatu²³.
7. Kristau historiako pertsonaia, gertaera eta mugimenduak aipatu eta deskribatu, eta gizarte errealitatera hurreratzeko esanguratsuak direnak nabarmendu²⁴.
8. Kristau historiako eta beste erlijio batzuetako gertaera nagusiak dagokien testuinguru geografiko, historiko, sozial eta kulturaletan kokatu.
9. Kristau elkarreak eta beste talde erlijioso batzuek judaismo edo islamarekin, Eliza ortodoxoarekin edo Eliza protestanteekin historian zehar izan dituzten harremanei buruzko gertaerarik esanguratsuenak aipatu eta deskribatu²⁵.
10. Iraganeko gertaerekiko atxikimendu pertsonala eta inguruaren eta gizateria osoaren etorkizunarekiko ardura.

9. multzoa: *Erljio ez kristauak*

1. Sinesmen jakin bat inguruko zer erlijiotan sar daitekeen eta zer erlijioentzat den funtsezkoa bereizi.
2. Norberaren talde erlijiosoaz bestelako taldeekin solasean jardun, sinesmenei, biziaren zentzuari eta norberaren itxaropenei buruz.
3. Norberaren talde erlijiosoaz bestelako taldeek gauzatutako kultura jarduera eta adierazpenak aintzat hartu eta ederretsi.
4. Inguruko talde erlijiosoen arteko bizikidetasunaren inguruko historiako aukerei buruzko argudioak eman.
5. Inguruko erlijioen hainbat alderdiri (sinesmenak, morala, elkarrea...) buruzko konparazioa egiteko metodoa ikasi eta zuzen erabili.
6. Sekta erlijioso esanguratsuenen izatasun eta jarduerari buruzko iritzia eman.
7. Erljio desberdinetako pertsona eta taldeen arteko bizikidetasun baketsuaren alde gogotsu jarduteko eta gizarte eta giza egitasmo komunetan parte hartzeko konpromisoak hartu.

Jakintzarik esanguratsuenak

1. multzoa (Sinesmena)

¹ Jainkoari, Jesusi, Elizari, Sakramentuei, betiko bizitzari buruz.

² Gaitasun honek aipatzen dituen erakundeak Elizaren antolakuntza egiturari dagozkio: Primatua, Gotzaintza...; baita Elizari dagozkion egiteko edo lan batzuk zehazteko edo gauzatzeko zeregina betetzen duten erakundeei ere (monakotza, katekumenotza, Elizaren egitekoaren barruan zeregin zehatzak gauzatzen dituzten kongregazio erlijiosoak...). Egitekoak eta lanak ezagunak dira eta dagoeneko multzo boni dagozkion edukietan aipatu izan dira: gurtza, Hitzaren irakaskuntza, giza sustapena... Eta jarduerak aurreko egitekoen eta lanen zehazpenak dira, ikasleen inguruan daude eta esperimenta ditzakete.

³ Ikusi sinesmenen gaineko azalpenak, kristau elkartearen otoitzak eta gurtza multzoari dagozkion edukietan.

⁴ Sinesmenak jokamolde jakin batzuen bidez adierazten dira: adibidez, Jainkoa guztion aita dioen sinestea denak anai-arrebatzat hartzeko jokamoldetan adierazten da; Jainkoa Jesu Kristorengan gizon egin deneko sinesmena giza duintasunaren errespetuzko jokaeran zehazten da... Honela, kristau moralaren oinarri eta arauen muinean beren bitartez agertzera ematen diren sinesmenak daude. Fedearen sinesmenek dituzten «bizitzarako ondorioen» antzekoak dira.

⁵ Esate baterako, beren sinesmenetan leial irautearen eta enperadorearen jainkotasuna aitortzearen artean hautua egin behar izan zuten lehenengo mendeetako Elizako martiriak. Martirologioko adibide batzuk aukera daitezke. Edo eskeko ordena batzuk eta beren sortzaileak (frantziskotarrak, esate baterako), erakunde horiek Kristoren pobretasunaren ereduari eta Probidentziarenganako fedeari oinarritu izan direlako historian zehar.

2. multzoa (Biblia)

⁶ Bibliako pertsonaia batzuek gauzatutakoen antzeko jarduerak burutu zituzten kristau historiako pertsonaiak (esate baterako, historian zehar txarkeria salatu izan duten pertsonen «profeta» deitu izan zaie; edo Ebanjelioa zabaldu duten pertsonen, «apostolu»...).

⁷ Biblia (IZ eta IB), Biblia judua (IZ bakarrik), Korana, Uppanishad, Tao Te Kin...

3. multzoa (Eliza)

⁸ Jainkoaren Familia, Jainkoaren Herria, Kristoren Gorputza...

⁹ Hitza irakurri, eskariak irakurri, koruan parte hartu, aldarean lagundu, otoitz egin, abestu, erantzun... elkarteko kide aktibo moduan: liturgian egiteko pertsonalak gauzatzeko trebatu (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan landu ez bada).

¹⁰ Ebanjelizazioari begirako gertaerak, kristau gurtzari dagozkion gertaerak, giza sustapenekoak...

4. multzoa (Gurtza)

¹¹ Liturgia jarduerak fedearen funtsezko adierazpenak dira («lez orandi, lex credendi»). Horrela, Aita Gurea otoitza Jainko Aitarenganako sinesmenaren eta Probidentziaganako fedearen adierazpena da; Eguberrietako jaia, Jainkoaren Semearen Gizakundean sinestearen adierazpena; Sortze Garbiaren jaia, Mariaren Sortze Garbiaren dogman sinestearen adierazpena; Penitentziaren Sakramentua, Jainkoaren errukian sinestearen adierazpena. Beraz, otoitz bakoitza, erritu bakoitza,

jai bakoitza, sinesmen baten adierazpena da. Ikasleak, beraz, edozein liturgia adierazpenetan adierazten den sinesmenari antzemateko gauza izan behar du.

¹² *Liturgiaren teologiaren balio adierazgarriak, gomutagarriak, emangarriak eta soteriologikoak dira. Honako hauek dira esanabi horien iturriak: tresna eta jarduera erritualen balio sinbolikoak esanabi adierazgarria ematen du; Bibliako testuek esanabi gomutagarria ematen dute; liturgia jarduerako jokaera eta jarrerak balio emangarri edo morala ematen dute; Bibliak eta sinesmenek esanabi soteriologikoa eskaintzen dute. Horiek guztiak aurreko zikloetan landutako elementuak dira.*

¹³ *Esate baterako, kokapen, jarrera eta mugimenduak zaindu eta ordenatuz, abestietan parte hartuz, jarduera pertsonaletan gizalegez jokatzuz...*

¹⁴ *Esate baterako, Pazko jaiaren mugikortasuna, erritu mozarabiarra leku eta egun berezi batzuetan...*

5. multzoa (Moralak)

¹⁵ *Biziaren zentzua eta sinesmenak dira jarduera moralaren azken xedea: kristau moralarentzat, lagun burkoarenganako maitasunaren printzipioa gizon-emakume guztiok anai-arreba garela sinestetik dator; eta giza duintasunaren errespetua (oinarri morala), denak Jainkoaren seme-alaba direla sinestetik. Jainkoa biziaren egilea dela, eta bizia Jainkoaren dohaina dela dago biziaren errespetuaren oinarrian. Jainkoak berak «gizon eta emakume, bere antz eta irudiko» egin zituelako ideia da bikotearen errespetuaren oinarria. Egia esateko, aginduaren oinarria, bestalde, hauxe da: Jainkoak zuzentzen duela munduan gertatzen den guztia, eta gezurrak jainko jarduera itxuragabetzen duela. Ondasunak partekatzeke agindua bi gauzatan oinarritzen da: Jainkoak Kreazioaren ondasunak gizateria osoari eman zizkiola (Populorum progressio) eta Jesusek dena eman zuela, baita bere bizia ere, gure alde, eta abar. Ikasleak kristau kode moralaren barneko jokamolde nagusien berri emateko gauza izatea da gaitasun honen helburua.*

¹⁶ *Gaitasun honen erreferentzia puntuak aurrekoaren berdinak dira, eta aurreko argudioen oinarri edo iturri diren Bibliako testuen ezagutzari dagozkio.*

¹⁷ *Esate baterako, alkoholaren, drogaren... kontsumoa.*

¹⁸ *Funtsezkoa da ikaslea gure garaiko arazo moral nagusiei buruzko jarrera arrazoitua hartzeko gauza izatea: giza biziaren morala (manipulazio genetikoa, eutanasia, anorexia, bulimia...); edo lanaren eta aberastasunaren banaketari buruzko morala (globalizazioari buruzko auziak); edo garapenari eta biziaren eta bere osotasunaren inguruko jasangarritasunari buruzko arazoak (indarkeria terrorista, tortura, genozidioa, mehatxua...).*

8. multzoa (Historia)

¹⁹ *Esate baterako, lehenengo mendeetako eztabaida kristologikoa, Sakramentuei buruzko Erdi Aroko eztabaida eta Trentoz geroko definizioa...*

²⁰ *Eduki honen adibide batzuk aurreko zikloan aurkeztu genituen. Beste eduki batzuetara zabal daitezke, eta ziklo honetako gaitasuna orduan proposatutako haie-tara bideratu: esate baterako, jatorrizko erlazioa da kristau elkarteak historian zehar egindako ebanjelizazio handien (Irlanda, Alemania, eslaviar herriak, Amerika...) eta Jesusen «Zoazte munduan barrena, irakatsi...» aginduaren artean dagoena. Edo Ekialdeko Zismaren eta Salomonen heriotzaren osteko Israelgo Zismaren arteko antzekotasuna. Edo historiako une desberdinetan gaiztakeria sala-*

tu zuten kristau elkarteko «profeten» eta Israelgo profeten arteko erlazioa. Edo hasierako ikasle eta elkarrekin jasan zituzten jazarpenak eta kristau elkarrekin kontra historiako hainbat unetan agintari politikoek bideratuak.

²¹ *Esate baterako, jazarpenak, Milango ediktua, Karlomagno, Gurutzadak...*

²² *Esate baterako, monakotza, karitatean, gaixoen arloan, hezkuntzan, eta abar jarduten duten ordena erlijiosoak.*

²³ *Obikoa da, esate baterako, Barrokoko adierazpen erlijiosoa eta Kontrarreforma-ren garaipena lotzea.*

²⁴ *Esate baterako, eskeko ordenak Erdi Aroan; indiarren defentsa Amerikan; Paraguaiako erredukzioak; «gizarte auziari» buruzko mugimendu eta jarduerak; gaur egungo garapenerako laguntza Hirugarren Munduan...*

²⁵ *Adibide batzuk: Gurutzadak, erlijio gerrak, bizikidetasun baketsua –Biblia eleantza–, hurbilketarako mugimenduak –ekumenismoa–.*

9 Ebaluaziorako irizpideak

Ebaluaziorako irizpideen bidez, helburu bat zenbateraino lortu den jakin daiteke. Hemen aztertuko ditugun ebaluaziorako irizpideek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle batek gaitasun bat zer mailataraino jadesi duen adierazten dute, hain zuzen ere. Baina gaitasunak ziklo honetarako finkatutako eduki multzoetan banatu eta zehaztu direnez, multzo horiek izango dira ebaluaziorako irizpideen erreferenteak. Multzoka sailkatuta, ikaskuntzaren emaitzen jarraipena gertukoagoa da. Ondorioz, multzoetan adierazitako edukien eta hemen formulatutako ebaluaziorako irizpideen arteko zenbakizko erlazio korrelatiboa ezartzen du curriculumak. Horrela, irakasleak, irizpideetan oinarrituriko ebaluazioaren bidez, zera zehaztu ahal izango du: gaitasunen zer eduki edo zer alderdi jadesi duen ikasleak, eta zein dauden oraindik lortzeke. Horri esker, ikasleak oraindik lortu ez dituen eduki edo alderdi horiei bereziki erreparatu ahal izango die errekupeazioan.

Hona hemen, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila honetan gaitasunen lorpena ebaluatzeko irizpideak:

1. SINESMENEI buruzko gaitasunak

- 1.1 Sinesmen nagusien aurkezpen simple bat abiapuntu hartuta, koadro sinoptiko eta kontzeptuen mapak egiten ditu, eta argi azaltzen du horien edukia.
- 1.2 Sinesmen edo kristau fedearen eduki jakin baten euskarri diren Bibliako testuak identifikatzen ditu.
- 1.3 Sinesmen baten edukiari buruzko argudioak edo azalpena ematen du, haren oinarri den/diren testu bat/batzuk aipatuta.
- 1.4 Kristau elkarteko erakunde edo eginkizun bati buruzko argudioak ematen ditu, haren oinarri den fedearen sinesmen bat nabarmenduta, gutxienez.
- 1.5 Erritu edo ospakizun liturgiko jakin batean adierazten diren sinesmenak markatzen ditu zerrenda batean.
- 1.6 Erritu, ospakizun edo liturgiako otoitz batean adierazten den kristau fedearen funtsezko sinesmena adierazten du.
- 1.7 Kontakizun bateko arau edo oinarri moralak zerrenda batean adierazitakoekin lotzen ditu.
- 1.8 Fedearen herri erlijiotasunean adierazten den funtsezko sinesmenari antzematen dio.
- 1.9 Antzinako objektu edo agiri batean adierazten diren sinesmenei antzematen die, objektu edo agiri horretan agertzen diren sinbolo, molde edo adierazpenak kontuan hartuta.
- 1.10 Historiako gertaeraren baten gauzatze, hitz edo testuinguruetatik haren protagonisten eragile izan diren arrazoiak ondorioztatzen ditu.
- 1.11 Kristau historiako gertaeraren batean erabakigarriak izan diren eta gertaera horiei lotuta dauden sinesmenak aipatzen eta kontaktzen ditu.
- 1.12 Talde erlijioso baten fedearen edukia aditzera ematen duen testu simple bat argi eta era ordenatuan azaltzen du.
- 1.13 Kristautasunaren sinesmen nagusiak eta talde erlijioso nagusienak lotzen ditu, konparazio metodoaren berariazko urrats eta baliabideak erabilita.

1.14 Fedearen edukiei buruzko aurkezpenak (ahozkoak eta idatzizkoak) sistematikoki, ordenan, zorrotasun zientifikoz prestatzen ditu.

2. BIBLIARI buruzko gaitasunak

- 2.1 Bibliako testu baten iruzkin literarioa egiten du, haren edukia identifikatzeko.
- 2.2 Bibliako testu baten azterketa egiten du, metodo hermeneutikoaren urratsei jarraituz.
- 2.3 Bibliako pertsonaia eta gertaeren eta kristau historiako pertsonaia eta gertaeren arteko lotura eskema modura adierazten du.
- 2.4 Antzinako erlijioaren baten berariazko testu sakratu baten edukiari antzematen dio.
- 2.5 Inguruko talde erlijiosoaren testu sakratuak eskema batean jasotzen ditu, literatura alderdien eta eduki erlijiosoaren arabera.
- 2.6 Bibliako testu baten literatura egituraz jabetzen da eta naturaltasunez iruzkintzen du, haren edukiari buruzko ondorioak ateratzeko.

3. KRISTAU ELKARTEARI buruzko gaitasunak

- 3.1 Eklesiologiako oinarritzko kontzeptuak erabiltzen ditu, Elizari buruz emandako iritzi bat babesteko edo horri buruzko eztabaida egiteko.
- 3.2 Elizaren izatasunari eta eginkizunei buruzko kristautasunaren funtsezko baieztapenak sostengatzeko Bibliako testu bat aipatzen du, gutxienez.
- 3.3 Kristau elkartearen jardueri buruz beste talde erlijioso batzuek duten iritzia azaltzen duten txostenak egin eta aurkezten ditu, zuzenean talde horietatik jasotako datuetan oinarrituta.
- 3.4 Elkartearen egitasmoren baten barruan zerbait egiteko erantzukizuna hartzen du, eta lortutako emaitzen berri ematen.
- 3.5 Hala dagokionean, zuzentasunez eta eraginkortasunez gauzatzen du bakarkako edo taldeko egiteko bat jarduera liturgiko batean.
- 3.6 Euskal Herriko gizartean, laguntzarako, kultura sustapenerako edo hobekuntzarako jardueretan diharduen talde edo erakunderen bateko kide da, eta egindako lanari buruzko azalpenak txosten batean biltzen ditu.
- 3.7 Kristau historiako gertaerak eskema edo friso historiko batean antolatzen ditu.
- 3.8 Elizaren historiaren friso edo eskeman finkatutako etapa bakoitzean Elizak gauzatuak egitekoari lotutako gertaera esanguratsuren bat aipatzen du, gutxienez.
- 3.9 Hainbat talde erlijiosoren arteko hurbiltze eta lankidetzarako borondatea islatu duen historiako gertaeraren bat gogoratzen du.
- 3.10 Beste erlijio batzuetako kideekin batera, bizikidetasunari eta eskolako jarduerari begira hobekuntza ekarriko duten egitasmu erlijioso txikiak gauzatzen ditu.
- 3.11 Talde erlijiosoak eta haien egitekoak hobeto ulertzeko konparazioaren metodoa erabiltzen du.
- 3.12 Hierarkia erlijiosoak arazo jakin baten gaineko iritzia adierazten du (esate baterako, galderak egiten ditu), edo argibideak bilatzen ditu, hala dagokionean.

4. ELIZAREN OTOITZ ETA GURTZARI buruzko gaitasunak

- 4.1 Adierazpen liturgikoez adierazten dituzten sinesmenez ohartzen da.
- 4.2 Zeinu liturgiko baten esanahia adierazten du, Bibliako, historiako eta teologiako funtsezko datuak emanez.
- 4.3 Jarduera liturgiko baten hobekuntza estetikoak lortzeko nola parte hartu eta lagundu badaki.
- 4.4 Herri erlijiotasunaren adierazpen baten esanahia labur deskribatzen du.
- 4.5 Berariazko jarduera liturgiko jakin batzuen jatorri historikoa deskribatzen du.
- 4.6 Erlijio desberdinetako antzeko jarduera liturgikoen arteko antzekotasun eta aldeak banan-banan aipatzen ditu.
- 4.7 Badaki jarduera liturgiko ekumenikoa nola prestatu eta bertan nola parte hartu.
- 4.8 Liturgia erritualeko zeinu eta arauak errespetatzen dituela eta/edo barneratuta dituela erakusten du.

5. KRISTAUTASUNAREN KODE MORALARI buruzko gaitasunak

- 5.1 Kristautasunaren sinesmenaren eta munduaren ikuskeraren gaineko (familia, haurdunaldia etetea, eutanasia...) kristau moralaren oinarritzko printzipioak eza-gutzen eta oinarritzen ditu.
- 5.2 Kristau elkartearen oinarri, arau eta irizpide moralak horien oinarri diren Bibliako testuak aipatuz azaltzen badaki.
- 5.3 Bibliako gertaera edo adierazpenetik eratorritako bizitza moralerako ondorioak aurreikusten ditu.
- 5.4 Kristau elkarteko erakunde, talde edo pertsonak gauzatzen dituzten ekintzak justifikatzen ditu, bere berariazko egitekoaren kontzientziatik sortzen den premia moralean oinarrituta.
- 5.5 Jarduera liturgiko jakin batean parte hartzeak kristauaren bizitzari dakarzkion ondorioez ohartzen da.
- 5.6 Inguruko gaur egungo jarduera, jokaera eta egoerei buruzko irizpideak formulatzen ditu, kristau kode moralaren oinarri eta arauetan oinarrituta.
- 5.7 Irudikapen artistiko baten balio estetikoak bereizten eta azaltzen ditu, eta argumentuaren, adierazpideen edo helburuaren balio etikotik bereizten ditu.
- 5.8 Etikari loturiko gaurko gizarteko egoera eta gertaerei buruzko iritzi eta/edo epaiak ematen ditu, kristau moralaren (giza biziaren morala...) oinarriak aplikatuta.
- 5.9 Gaur egun indarrean dauden kristau jokamolde eta kode jakin batzuk historiako gertaerekin lotzen ditu.
- 5.10 Inguruko talde erlijiosoek gaur egungo egoera eta arazoei buruz duten jarrera etikoa argudiatzen badaki, haietako bakoitzaren kode etikoan jasotzen diren jokaera oinarri eta arauak oinarri hartuta.
- 5.11 Beste talde erlijioso batzuek gaur egungo egoera eta arazoei buruz duten jarreraren berri jasotzen du, informazioa haiengandik zuzenean bereganatuta.
- 5.12. Iritzi eta epai moralak argudiatzen ditu, kristautasunaren eta beste erlijio batzuen oinarri etikoak aipatuta.

6. KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN ARTISTIKOEI buruzko gaitasunak

- 6.1 Eduki erlijiosoko artelanean egileak adierazten dituen esperientzia erlijiosoa eta bizitzaren aurreko jarrera antzematen ditu.
- 6.2 Kristau liturgiaren adierazpen estetikoak (espazioak, mugimenduak, koloreak, apaingarriak...) deskribatzen ditu.
- 6.3 Irudi erlijiosoak ulertzeko kode estetikoak eta erlijiosoak zuzen erabiltzen ditu.
- 6.4 Literatura lan erlijiosoa aurretik zehaztutako kode estetiko baten arabera interpretatzen du.
- 6.5 Musika kode bat egoki erabiltzen du, erlijio konposizio bat interpretatzeko.
- 6.6 Komunikabideetan –zinema, telebista, musikalak...– agertzen diren adierazpen artistiko erlijiosoei buruzko iritzi zehatzak eta arrazoituak formulatzen ditu, haien edukiari eta moldeari dagokienez.
- 6.7 Inguruko erlijioen adierazpen artistikoen ezaugarriak konparatzen ditu eta aldeak arrazoitzen ditu.
- 6.8 Arte erlijiosoko lan baten egileari eta haren sentimenduei eta esperientziei buruzko aipamenak naturaltasunez egiten ditu.

7. KRISTAU FEDEAREN GIZARTE–KULTURA ADIERAZPENEI buruzko gaitasunak

- 7.1 Esaera zahar eta esamolde herrikoi batzuen eta kristau erlijio sinesmen edo eduki jakin batzuen arteko lotura egiten du.
- 7.2 Euskal Herriko kultura ondareko usadio eta jai batzuen funtsa azaltzen du, horien jatorri izan ziren sinesmen eta gertaerak oinarri hartuta.
- 7.3 Elizak Hirugarren Munduaren, etorkinen, minusbaliatuen edo era bateko eta beste behartsuen alde sustatzen dituen egitasmo, jarduera edo kanpainetan laguntzen du.
- 7.4 Gizarte-kultura adierazpen erlijioso batzuen jatorri eta testuinguru historikoa deskribatzen du.
- 7.5 Talde erlijiosoen arteko bizikidetasuna hobetu ala zaildu dezaketen gizarte gertaera batzuei buruzko iritzi pertsonala ematen du.
- 7.6 Giza duintasunaren aldeko jarduetan edo gogoetetan parte hartzen du, batez ere inguruko gizaki eta taldeen duintasunari loturikoetan.

8. KRISTAU ELKARTEAREN HISTORIARI buruzko gaitasunak

- 8.1 Sinesmenik garrantzitsuenak eztabaidatu edo aldarrikatu izan diren kristau historiako egoera edo gertaerak aipatzen eta deskribatzen ditu.
- 8.2 Kristau historiako gertaera erabakigarriak eskema modura adierazten ditu edo friso historiko edo toki jakin batean kokatzen ditu.
- 8.3 Kristau historiako gertaeraren batekin lotura duen eta gertaera horretan aipatzen den Bibliako testuren bat iradokitzen du.
- 8.4 Elizaren geroko garapenerako erabakigarriak izan ziren kristau historiako gertaera haiek eta horien ondorio batzuk ezagutzen eta deskribatzen ditu.

- 8.5 Gaur egungo Elizan dauden erakunde garrantziko batzuen jatorri historiko edo sorrera kontatzen du.
- 8.6 Kristau historiako aurreko aldietan pertsonaien edo kristau elkartearen gertaerei buruz finkatu izan diren irizpide moralak formulatzen eta justifikatzen ditu.
- 8.7 Historiako beste garai batzuetako berariazko estilo edo mugimendu artistiko edo egoerei dagozkien ezaugarri edo datuak antzematen ditu artelanetan.
- 8.8 Gaur egungo gertaerak eta kristau historian gizartearen eraldaketaren alde edo laguntza pertsonalean jardun izan zuten pertsonaia edo mugimendu erlijiosoak lotzen ditu.
- 8.9 Kristau elkarteko edo beste elkarte edo talde erlijioso batzuetako gertaera nagusien testuinguru historiko, sozial eta kulturala deskribatzen du.
- 8.10 Elizaren eta beste talde erlijioso batzuen arteko harremanen gertaera historiko esanguratsuak kontatzen ditu.
- 8.11 Gaurko edo geroko jarduera eta gertaerak oinarritzeko, aztertzeko edo aurreikusteko erreferentzia historikoak naturaltasunez bilatzen ditu.

9. INGURUKO BESTE ERLIJIO BATZUEI buruzko gaitasunak

- 9.1 Sinesmenak eta sinesmen bakoitzari dagozkion inguruko erlijioak lotzen ditu.
- 9.2 Sinesmen eta itxaropen erlijioso pertsonalak komunikatzen dizkie beste erlijio batzuetako pertsonaei, errespetuz eta enpatiaz.
- 9.3 Beste talde erlijioso batzuek gauzatutako kultura jardueren gizarte eta giza ekarpenak aintzat hartzen ditu.
- 9.4 Erlijio nagusiek gizakiaren eta gizartearen erakuntzari begira egindako ekarpenak laburbiltzen ditu.
- 9.5 Inguruko konfesio erlijiosoen arteko bizikidetasunari buruzko arazoei konponbideak jartzen dizkie.
- 9.6 Erlijioen jatorri eta hedapenari buruzko mapak eta grafikoak egiten ditu.
- 9.7 Erlijio nagusien doktrinaren alderdi adierazgarrienen grafikoak egiten ditu.
- 9.8 Inguruko sektei buruzko informazioa jasotzen du.
- 9.9 Sekta batzuen doktrinaren oinarritzko alderdiak deskribatzen ditu.
- 9.10 Bere erlijioaz bestelako talde erlijiosoetako kideekiko harreman eta truke erregular edo maizkoak ditu.

10 Argibide metodologikoak

Gaitasunen erduan oinarrituriko Erlijioaren irakaskuntzarako metodologiak bi euskarri ditu. Lehenengoa, *erlijioaren edukien* euskarria; bigarrena, *erlijio jarduerarena*.

Eskolan irakasten den *erlijioaren edukia errealitate erlijiosoa da, osotasunean hartuta*, ikaslearen inguruan gauzatzen den moduan. Jakintzaren ikuspuntutik, errealitate erlijiosoaren hiru motatako osagaien inguruan antolatzen da curriculum: osagai batzuk *adierazle erlijiosoak* dira (elkartea, gurtza; kode morala; arte, gizarte eta kultura adierazpenak); beste batzuk, *esanahiaren bitartekoak* (Biblia eta fedearen iturriak; historia); eta beste batzuk, azkenik, *esanahiaren enuntziatuak* (sinesmenak). Egitura espistemologiko hori eta eduki bakoitzaren berariazko jatorria kontuan hartzea ezinbestekoa da programazio egokia gauzatzeko.

Jarduera gaitasunaren funtsezko osagaia da. Gaitasunak irakastea edo ikastea «...t(z)en irakatsi» edo «...t(z)en ikasi» esapidearen bidez adierazten da. *Gaitasunen irakaskuntza, beste ezer baino lehen, irakaskuntza aktiboa da*. Ikasleak zerbait egiten ikasten du beti, horixe baita gaitasunaren xedea. Horren arabera, ikaskuntza prozesua, batez ere, ikaskuntza aktiboa da ikaslearentzat. Ikasleak «trebatu» behar du, lortu nahi duen gaitasuna gauzatzeko prestatu behar du.

Bi euskarri horietan bermatuta daude ondoren garatzen diren proposamen metodologikoak: *edukiaren programazio eta antolakuntzari* buruzkoak, batetik, eta *ikaskuntzaren garapen eta metodologiari* dagozkionak, bestetik.

a. Edukien programazioa, gaitasunen erduan

Oro har, eskolan Erlijioa irakasteko programazioak jakintzen transmisiora bideratu izan dira, eta ikasgai zerrenda erara antolatu. Ikasgai zerrendak ikasturtean jadetsi beharreko jakintzen antolaketa logiko eta koherenteak dira. Baina gaitasunen programa antolatu nahi denean, beste irizpide batzuei jarraitu behar zaie.

Lehenengo eta behin, honako hau kontuan hartu beharra dago: antolatu beharreko edukiak ez direla gaika multzokatutako jakintzak (kristau mezuaren edukiak); ikasleak, fededun izan ala ez, bere inguruko errealitate erlijiosoari buruz jadetsi behar dituen gaitasunak direla. Baina, bestalde, Erlijioaren irakaskuntza konfesionalaren barruan, kristau erlijioaren berariazko ezagutzak dira ikasleak jadetsitako gaitasunen funtsezko euskarriak. Bi osagaiak, gaitasunari eta kontzeptuari dagozkienak, uztartu behar ditugu, irakaskuntza programazioa eratzean.

Ziklo edo ikasturteko programazioa gauzatzeko honako hiru eredu hauetako bat har daiteke oinarri:

1. JAKINTZA GAIK eta EDUKIAK

Transmisio erduetan programaziorako erabiltzen den ohiko erdua da: jakintza edukiak kontuan hartzen dituen. Gaitasunen erduan, jakintza nukleo edo gaika ere egin daiteke programazioa. Baina hala egitekotan, honako ohar hauek kontuan hartu beharko ditugu:

- a) Gaitasunen bidez jadetsi nahi diren helburuak errealitate erlijiosoaren esparruak dira, ez kristau mezuaren jakintza zehatzak. Lehen Hezkuntzak jakintzaren hastapen edo sarbide orokor gisa diharduenez, errealitate erlijiosoaren elementu edo esparruak erlijioaren berariazko egitura kognitiboaren arabera antolatzea jotzen da aproposentzat: *adierazleak, bitartekoak eta esanahiak*. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, jakintzak bereizi egi-

ten dira; hau da, hurbilago dago jakintzaren antolaketa zientifikotik, haurtzaroko berariazko hautemate globaletik baino. Hortaz, erlijioaren edukietan berezitateak lau alderdiak kontuan hartuta antolatu behar ditugu errealitate erlijiosoaren osagaiak edo esparruak:

- Alderdi *zientifiko-teknikoa*. Sinesmenak, Biblia edo jarduera liturgikoa hartzen ditu bere baitan alderdi honek, zientzia teologikoaren berariazko egituretan antolatuta.
- Alderdi *kultural eta historikoa*. Historia erlijiosoa zein fedearen adierazpen artistikoak eta erlijioaren gizarteko presentziaren adierazpen sozio-kulturalak biltzen ditu alderdi honek.
- Alderdi *antropologikoa*. Kristau elkartearen errealitateak eta inguruko beste erlijio batzuei ere badagokien gertaera erlijiosoaren egitura orokorrak osatua da alderdi hau.
- Alderdi *etiko-moral*a, erlijioaren kode etiko-moralari dagokiona.

Jakintza eduki gisa programatutako gaiak lau esparru horietako edozeini erantzun diezaiokete. Beraz, eduki erlijiosoko ikasgai zerrendak osa daitezke (sinesmenei, Bibliari edo gurtzari buruzkoak); ikasgai zerrendak Erlijioari buruzko eduki historiko, artistiko edo kulturalen arabera artikulatu daitezke; erlijio gertaeraren funtsezko egiturak erreferentzia hartuta presta daitezke; edo etika eta moralari dagozkien funtsezko auzietan oinarrituta eraiki daitezke.

- b) Hala ere, jakintza edukien programa garatzean, lau alderdiak azalduko dira gai bakoitzean. Gai bakoitzean alderdi bakoitzari buruz garatu beharreko gaitasunak zehaztu beharko dira. Edozein gai teologikok (kristologikoak, esate baterako), berariazko alderdia du lehenengo, hau da, alderdi teologikoa; baina alderdi antropologikoa, alderdi kultural eta historikoa eta alderdi etikoa ere baditu. Gaia historiko-kulturala bada (Elizaren historiako gertaera bat, esate baterako), berariazko alderdi kultural eta historikoa du lehenengo; baina bistakoa da gertaera horretan alderdi teologikoa, alderdi antropologikoa eta alderdi etikoa badirela; berdin gertatzen da gaia antropologikoa denean ere (kristau elkartearen ekintza edo jarduera, esate baterako), alegia, alderdi kultural eta historikoa, alderdi teologikoa eta alderdi etikoa ere badituela. Eta gauza bera, azkenik, eduki etiko moraleko gaiekin (bioetikoari buruzkoa, esate baterako): berariazko alderdi etikoaz gain, gaiak ikuskera teologiko zientifikoa, ikuspuntu kulturala eta ikuspuntu antropologikoa ere izango ditu. Jakintzaren gaiak alderdi jakin batean oinarrituta programatuta ere, errealitate erlijiosoaren esparru guztiak agertuko dira gai horietako bakoitzean.

Eta edukien gaineko ikuspuntu laukoitz horrek zehazten du, hain zuzen ere, eduki bakoitzerako zer gaitasun eskatzen den.

2. GAITASUNAK

Programatu nahi den ziklo edo ikasmilan ikasleak jadesi beharreko gaitasunak beste alderdi batzuen gainetik nabarmenduz ere egin daitezke programazioa. Kasu honetan, errealitate erlijiosoaren osagaien inguruan egituratzen da programa. Horrela, *sinesmenei* buruzko gaitasun bati edo batzuei buruzko «gaia» edo multzoa izango dugu; beste batek *kristau elkarteari* buruzko gaitasun bat edo batzuk adieraziko ditu; beste batek *kristau gurtzari* buruzko gaitasunen bat proposatuko du...; eta horrela, hurrenez hurren. Irakasleak curriculumean dagokion maila edo ziklorako programatutako gaitasunen arteko aukera egin beharko du.

Gaitasunen araberako programazioan, ikasleak finkatuko du gaitasunak zer jakintzaren gainean gauzatuko diren. Horretarako, curriculumeko gaitasunak banan-banan aipatu izan direnean orrialde oinean adierazitako ezagutzak kontuan har daitezke.

Bestalde, irakasleak arreta eman beharko dio errealitate erlijiosoaren osagaiei dagokienez maila eta kurtso jakin baterako curriculumaren barruan ezarritako gaitasunen arteko korrelazioari. Izan ere, elementu horiek elkarrekin erlazionatuta daude, oro har, eta, erlazio horren arabera, elkarren osagarri diren gaitasunak edo gaitasun beraren oinarrian zenbait jakintza eduki ezarri ahal izango dira.

3. EGITASMOAK

Erljioaren eskolako irakaskuntza eta ikaskuntza, gaitasunen ereduaren arabera, egitasmoka ere programa daiteke. EAEko Curriculumari buruzko Dekretuak 10.2 artikuluan dioenez: «*Egitasmo globaletan oinarritutako lanak oinarritzko gaitasun guztien arteko transferentzia abalmena eta arlo eta gaien arteko prozesu diziplinartekoagoak eragiten ditu*». Irakaskuntza lan egitasmoka programatzeko jarduerak tradizio luzea du berrikuntzarako mugimendu pedagogikoei estuago lotutako eskola giroetan. Erljioaren eskolako irakaskuntzaren esparruan ere hainbat saiakera eta gauzatze egin dira, hala ere. Lan egitasmoak errealitate zehatzaren alderdiren bat eraikitzeke proposamenak dira, eta ikasleak egitasmoa gauzatzeko beharrezko jakintza eta trebetasunak jadetsi behar ditu. Adibide gisa, garai batean, Bigarren Hezkuntzako Erljioko eskoletan Godspell ikuskizun baten antzezipena prestatzeko lan egitasmoa proposa zitekeen. Godspellaren gidoia eta antzezipena egiteko, ikasleek zeregin hori gauzatzeko jakintza eta trebetasunak jadesteko prozesu zabala burutu behar zuten.

Egitasmoen funtsezko ezaugarria errealitatearekin eta ikasleen esperientziarekin zuzeneko lotura edukitzea da. Askotariko egitasmoak programa daitezke. Batzuk *ikerketarako egitasmoak* dira, eta ikasleek gertaerak, enigmak edo argitu beharreko auziak ebatzi behar dituzte: argibide horiek eta esanahiak aurkitzeak historian, Biblian, sinbologian, kode estetikoan aplikazioan ikertzea eskatzen du. Ikerketa egitasmoak ez dira nahitaez jakintza teorikoei buruzkoak. Gaurkotasun betearen duen albiste baten oinarria iker daiteke; inguruko erakunderen bati buruzko ikerketa ere egin daiteke (haren jatorria, historia, ideologia, antolakuntza, bere gaur egungo jarduerak...). Ikerketakoez gainera, badira zerbait eraikitzeke xedea duten egitasmoak: Erljioaren irakaskuntzari dagokionez, beste kristau elkarte batzuekiko laguntza edo lankidetzako egitasmoak izan litezke (garapen bidean dauden herrialdeak, esate baterako); edo inguruko eliz elkartearen jardueretan parte hartzeko egitasmoak. Bereziki erakargarriak dira, bestalde, prestakuntzako egitasmoak deritzenak. Ekitaldi jakin bat *prestatzeko egitasmoak* dira: esate baterako, ikastetxean edo auzoan jai bat; toki edo erakunde batera bisita (museoa, eliza, monasterioa, ospitalea); jarduera esanguratsu bat (erromesaldia santutegi batera, edo Donejakue Bideko zati bat egitea...); edo elkarriketa bat (jarrerarengatik, jarduerarengatik, eta abar esanguratsuak diren pertsona edo taldeei).

Erljioaren irakaskuntza egitasmoka programatuz, dagokion curriculumean jasotzen diren jakintza eta trebetasunak jadesteko aukera eman nahi zaie ikasleei. Funtsezkoa da programazioa prestatzean irakasleak kontuan izatea egitasmoaren garapenak curriculum proposamenean jasotzen diren gaitasunen gauzatze eta jadestea ekarri behar diela ikasleei. Hurrengo atalean eskaintzen dira iradokizun batzuk, hiru mota hauetako programazioak eraginkortasunez garatzeko.

b. Ikaskuntzaren antolakuntza, gaitasunen ereduan

Gaitasunen ikaskuntza jakintzen ezagutzatik bereizten da, alderdi batzuetan. Ikaskuntzaren programazioari eta garapenari dagozkion funtsezko honako hiru elementu hauetan, hain zuzen ere: *denbora*, *jarduerak* eta *ebaluaziorako irizpideak*.

1. Denbora

Denborak ikaskuntzaren iraupena eta erritmoa mugatzen ditu. Kristau erlijioaren jakintzak ikasi behar direnean, ikaskuntzaren erritmoa bizkorragoa izan daiteke, beste edozein jakintzarekin gertatzen den bezala. Baina trebetasunen eta gaitasunen ikaskuntzan, denbora gehiago behar izaten da. Datu hori kontuan izan behar dugu ikasturteko programazio orokorra egitean nahiz unitate didaktiko bakoitzaren programazioa zehaztean. Programazioa prestatzeko aukeratzen den ardatzaren arabera (jakintza gaiak, gaitasunak edo egitasmoak), programazioa era jakin batean antolatu beharko da. Honela, oro har: ikasturtearen programazioa *jakintzak (gaiak)* oinarri hartuta egiten bada, gai bakoitza lantzeko hamabost egun har daitezke, gaur egun erabiltzen den ereduari jarraituz; programazioak *gaitasunak (curriculumeko eduki multzoak)* oinarri baditu, gaitasun bakoitzari hilabeteko epea eskaini dakiogke; eta programazioa *lan egitasmoka* prestatuz gero, hiruhileko bakoitzerako unitate didaktiko bat edo bi programatu beharko liriateke, egitasmoaren helburuaren eta egitasmoak ikasleengan piztutako jakin-minaren arabera.

2. Jarduerak

Gaitasunen ereduan, ikaslearen jarduera ikaskuntzaren helburua eta metodoa da, aldi berean. Ikasleak dagokion jarduera gauzatzeko behar den trebetasun eta bikaintasuna jadestea ikaskuntzaren helburuaren funtsezko alderdia da, lehenengo eta behin. Era berean, jarduera hori gauzatzea lortu nahi den trebetasun jadesteko metodoa ere bada. Errealitate erlijiosoari buruzko trebetasun, abilezia edo gaitasunez ari garenean ere, baliozkoa da printzipio hori. Jarduera da tresna pedagogikorik funtsezkoena Erlijioari buruzko gaitasunak jadesteko.

Baina errealitate erlijiosoari buruzko ikaskuntza jarduerak planteatzeko garaian, kontuan hartu beharko genituzke psikologiak eta pedagogiak gaitasunen jadespena arrakastaz lortzeko proposatzen dituzten urratsak: jarduera baten ikaskuntzaren lehenengo fasea *imitazioa da*; ikasleak irakasleak zuzenean emandako ereduari jarraituz jarduten du ikasleak. Bigarren urratsa *jarraipena da*: ikasleak idatzizko, ahozko edo ikono bidezko agindu batzuei jarraituz gauzatzen du jarduera. Hirugarren urratsa *autonomiaren* urratsa da; urrats honetan, ikasleak ez du idatzizko aginduei arreta eman beharrik, dagoeneko barneratuta dituelako, eta bere kabuz ematen ditu eman beharreko pausoak. Laugarren urratsa *hobekuntzarena* da: jarduera ikasten diharduenak dagoeneko menderatzen du, eta hasieran ikasitako eredu zuzentzeko eta premia berrietara nahiz esperientziak ematen dizkion aberastasun eta laburbideetara moldatzeko gauza ere bada. Azkenik, ikasitako jarduera *obitura* bihur daiteke: gaitasuna erabat jadetsi duela esan nahi du horrek, alegia, gaitasuna jadetsi duen hori dagoeneko ez dagoela ariketaren mende eta hura naturaltasunez gauzatzen duela.

3. Ebaluazioa

Hemen aipatzen dugun ebaluazioa ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzean datza: guri dagokigunez, ikasleak ikaskuntza prozesuan errealitate erlijiosoari buruz jadetsitako gaitasun maila egiaztatzean. Gaitasunen curriculumean proposatzen den ebaluazioa irizpideetan oinarrituriko ebaluazioa da.

Errealitate erlijiosoari buruzko gaitasunak ebaluaziorako irizpideen bidez ebaluatzen dira. Ebaluaziorako irizpideak ikasleak ikaskuntzaren helburu hartutako gaitasunak jadetsi dituen islatzen duten adierazleak dira. Adierazle edo sintoma horiek ebaluatu nahi den gaitasuna gauzatzea eskatzen duten jarduerak egitea edo arazoak ebaztea dira. Horixe da curriculumean formulatzen diren ebaluaziorako irizpideen adiera eta, ikus daitekeenez, curriculumeko edukien kapituluak aurkezten diren gaitasun edukiren bati dagozkio. Irakaslearen ardura da ikaskuntzarako jardueretan programatu izan dituen kristau erlijioaren jakintzak ebaluaziorako irizpide bakoitzean zehaztuz joatea.

Ebaluaziorako irizpide bakoitzak ikasleak errealitate erlijiosoari buruzko gaitasuna zer neurritaraino jadetsi duen jakiteko bidea ematen digu. «Kalifikazioari» dagokionez, haxe da ebaluaziorako irizpideak ematen duen aukera: ikasleak eskatutako gaitasuna JADETSI DUEN ala EZ DUEN JADETSI. Jadetsi ez badu, irakasleak *errekuperaziorako* ariketa batzuk proposatu behar dizkio ikasleari, errealitate erlijiosoari buruzko gaitasun hori jadetsi arte.

Erljio curriculumak gaitasunen ereduari egokitzea beste urrats bat da Erljioaren irakaskuntza ikasleen garapen pertsonalari laguntzen dioten curriculum ikasgaien multzoan erabat txertatzeko eta euskal gizartean eta elkarte unibertsalean sozializatzeko.

2. Curriculumetik unitate didaktikora

Erljio gaitasunen curriculumak behar bezala programatu eta garatutako unitate didaktiko bihurtzeko, sei urrats edo maila finkatu ditugu; urrats horien bidez, irakasleak curriculum proposamenari buruzko informazio xehea eskuratuko du. Eta, aldi berean, gelan lantzeko programa egokia osatuz joango da; horrela bideratu ahal izango ditu irakaskuntza jarduerak ikasleek Lehen Hezkuntzan beren inguruko errealitate erlijiosoari buruz hartu beharreko gaitasunak lortzera, datu erlijioso kristautik abiatuta.

Hona hemen programazioan bereizi diren sei urrats edo mailen deskribapena.

Esan dugunez, Erljio Katolikoaren irakaskuntzarako programazioaren oinarritzko mugarrak dira urrats hauek, eta gaitasunen eredu didaktikoari jarraitzen diote:

1. Lehen urratsa: Erljio curriculumetik unitate didaktikoen definizioa.

2. Bigarren urratsa: Zikloko unitate didaktikoen zerrenda.

3. Hirugarren urratsa: Unitate didaktiko bakoitzeko edukien definizioa.

4. Laugarren urratsa: Unitate didaktikoa lansaioka antolatzea.

5. Bosgarren urratsa: Eskola saio bakoitzeko eskola jardueren programazioa eta diseinua.

6. Seigarren urratsa: Gaitasunen ebaluazioaren programazioa.

1. Erljio curriculumetik unitate didaktikoen definizioa.

Lehenengo urratsean, bi xede nagusi bete nahi dira, programazioari dagokionez: batetik, irakasleak Erljio curriculumaren ikuspegi orokorra izatea; eta bigarrenik,

curriculum horretatik abiatuta, ikasgaia landu behar duen ziklorako «programa» finkatzea.

Aurreko eredu kognitiboan, irakasleak edukien programa curricularra hartzen zuen oinarri, eta hortik abiatuta aztertzen zuen ikasmaita bakoitzeko programan zer gai sartu behar zituen. Eredu honetako lehen urratsa, bada, haren antzekoa da; baina oso-oso kontuan hartzeko bi alderdi daude hemen: batetik, irakasleak eredu honetan programatu beharrekoa ez direla ikasleek ikasi beharreko *Erljioko gaiak, ikasleak errealitate erlijiosoari buruz bereganatu beharreko gaitasunak baizik*; bestalde, kontuan hartu beharra dago programazio hau zikloko programa bat prestatzera bideratua dela.

2. Zikloko unitate didaktikoen zerrenda.

Aurreko urratsaren bidez, curriculumak errealitate erlijiosoaren alderdi bakoitzera-ko zehazten dituen gaitasunak aztertu ditugu. Orduan egindako lanari esker, ikasleek dagokien zikloan erlijioaren alderdi bakoitzari buruz berenganatu beharreko gaitasunen multzoak formula global batean laburbilduta edukiko dugu.

Bigarren urratsean, formulazio global horiek zerrenda bakar batera bilduko ditugu; alegia, aurreko urratsean errealitate erlijiosoaren alderdi bakoitzera-ko zehaztutako gaitasunen formulazio globalak bateratu egingo ditugu. Zerrenda horrek osatuko du, hain zuzen ere, zikloko unitate didaktikoen zerrenda. Eta eredu kognitiboan ikasteko «gaien zerrenda» litzatekeenaren baliokidea da. Gaitasunen eredu-aren ordez, unitate didaktiko bakoitzari izenburua emango dion «gaitasunen programa» bat izango dugu.

Horretarako, hezkuntza sistemako zer ziklotarako programa egin nahi dugun, ziklo horri erreparatu beharko diogu.

3. Unitate didaktiko bakoitzeko edukien definizioa.

Aurreko urratsean prestatutako unitate didaktikoen programan, gaitasunen zerrenda bat agertzen da, dagokion zikloan ikaskuntzaren xede diren gaitasunen zerrenda, hain zuzen ere. Hala, eredu kognitiboan «gai» bakoitzaren edukien programazioa egiten zen bezalaxe, eredu honetan programan bildutako gaitasun bakoitzari dagozkion edukiak programatzen dira.

Programazioaren hirugarren urrats honetan (edukien definizioan), gogoan izan behar dugu bi motatako edukiak programatu behar ditugula unitate didaktikoan: gaitasunari dagozkion edukiak, batetik, eta irakasgaiari dagozkionak, bestetik. Biak dira curriculumaren parte, eta biak kontuan hartu eta uztartu behar dira unitate didaktiko bateko edukiak finkatzeko.

Eredu kognitiboan, unitate didaktikoaren garapenak gaiaren eduki kognitiboan logikari jarraitzen dio; eta eredu honetan, berriz, gaitasun bakoitza garatzeko beharrezko trebetasunen logikari jarraituz garatzen dira unitate didaktikoak. Era berean, eskolako lansaioak ezagutza multzo koherente baten inguruan antolatzen dira, aurreko eredu-aren; eta, gaitasunen eredu-aren, berriz, dagokion unitate didaktikoan lortu beharreko gaitasuna jadedesteko beharrezko trebetasun bat lantze-ari begira antolatzen dira lansaioak.

4. Unitate didaktikoa lansaioa antolatzea.

Programazioaren laugarren urratsean, beraz, unitate didaktikoaren edukietan ikasteko programatutako trebetasunak finkatu (aurreko urratsa) eta unitate didaktikoaren garapenerako erabiliko dugun lansaio bakoitzera-ko lan programa bat finkatuko dugu.

5. Eskola saio bakoitzeko eskola jardueren programazioa eta diseinua.

Programazioan egindako hurrenez hurreneko urratsen bidez, ikasgelaraino eta eskola saioraino iritsi gara; horiek dira, hain zuzen ere, programa guztien jomuga. Programazioaren aurreko urratsean eskola saio bakoitzean zer ikasiko dugun zehaztu dugu. Orain egin nahi dugun urratsaren bidez, berriz, lansaio bakoitzean egingo ditugun eskola jarduerak definituko eta antolatuko ditugu.

Bosgarren urrats honetan, beraz, programazioaren aurreko urratsean proposatutako trebetasuna eta irakasgai edukia (edo ezagutza) ikasteko egin beharreko ikaskuntza jarduerak diseinatuko eta antolatuko ditugu.

6. Gaitasunen ebaluazioaren programazioa.

Emaitzen ebaluazioa funtsezko jarduera da, bi ikuspegitatik: proposatutako ikaskuntza helburua ikasleak zer mailatan bete duen jakiteko, batetik; eta abian jarri den irakaskuntza-ikaskuntzako sistemaren baliagarritasuna neurtzeko, bestetik. Horrenbestez, programazio prozesuaren gainerako urratsetatik bereizi ezinezko edo gerora ezinezko urratsa da ebaluazioaren programazioa.

Hala, programazioaren seigarren urratsean aurreko urrats guztietan zehaztutako ikaskuntza xedeen arabera irakaskuntza prozesuak emandako emaitzak neurtzeko irizpide batzuk finkatu behar ditugu. Horretarako, zehatz-mehatz adierazi behar dugu zer ebaluatu nahi dugun, eta prozesu jarraitutzat hartu behar dugu ebaluazioa. Horregatik, aurrez programatu eta diseinatutako ikaskuntza saioetan oinarrituko ditugu ebaluaziorako jarduerak.

Horiek dira gaitasunen araberako programazioa garatzeko oinarritzko urratsak. Horiek sakonago landu nahi izanez gero, jo Rafael Artacho López egilearen *Enseñar competencias sobre la Religión* liburura, Desclee de Brouwer, Bilbo, 2009.